Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

# *Lo Eizagirre Erguin*

*Zarautz, Gipuzkoa (1988)*



Aurkibidea

# Biografia



Zarutzen jaioa da Lo, 1988an, eta zarauztarrak ditu gurasoak ere. Bi senidetan zaharrena da. Gipuzkoako Surf Federazioko idazkari lanetan ari zen Eli Thomas lagunarekin batera elkarrizketa egin genionean. Surfean plazerez zein lehian aritua, bere esperientzietan oinarritutako testigantzak eskaintzen ditu, eta baita kirol horri generoaren ikuspegitik botatako begirada ere.

# Zintak

## ZAR-163

- **Proiektua**: Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Data**: 2015-03-24
- **Iraupena**: 57 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Eizagirre Agoues, Libe

## ZAR-165

- **Proiektua**: Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Errazkin, Aitor
- **Data**: 2015-03-24
- **Iraupena**: 34 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

# Pasarteak

## 1. Aurkezpena

- **Erref**: ZAR-163/001
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Lo Eizagirre Erguin 1989ko maiatzaren 11an jaio zen Zarautzen eta bertan bizi izan da. Gurasoak zarauztarrak ditu, aita herrikoa eta ama San Pelaio auzokoa. Bi alabetatik gazteena da bera. Gipuzkoako surf federazioko idazkaria izateaz gain, Zarauzko surf eskolako irakasle da aspaldititik.

## 2. Zarauzko surf eskola

- **Erref**: ZAR-163/004
- **Iraupena**: 0:04:19. **Hasi**: 00:03:14. **Bukatu**: 00:07:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

**Laburpena**:
Elkarrizketa burutzen den tokiari buruz ari dira, Zarauzko surf-eskolari buruz. 1991ean sortu zen surf-eskola. Zarauzko surf eskolak udan astebeteko ikastaroak eta udaberrian zein udazkenean ikastaro luzeagoak eskeintzen ditu.

## 3. Emakumeen presentzia uretan

- **Erref**: ZAR-163/005
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:07:33. **Bukatu**: 00:10:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

**Laburpena**:
Elik surfean geroz eta emakume gehiago ikusten direla dio. Lok berriz, lehiaketetan hemezortzi urtetik gorako emakume gutxik partehartzen dutela dio. Ikastarotan emakume asko egon arren, lehiaketek ez dute hori isladatzen. Eliren ustez, emakumeak talde bat osatu beharko lukete horretan hasteko.

## 4. Emakumeak surflari ekimena

- **Erref**: ZAR-163/007
- **Iraupena**: 0:04:29. **Hasi**: 00:10:38. **Bukatu**: 00:15:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

**Laburpena**:
Lok emakumeak surflari ekimena zer den kontatzen du. Gipuzkoako Federazioak sortutako ekimen bat da emakumeen artean surfa bultzatzea du helburu. Lok ekimen hori zergatik sortu zen kontatzen du.

## 5. Surflaria eta emakumea izatea I

- **Erref**: ZAR-163/009
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:16:08. **Bukatu**: 00:17:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Emakumeak surfean zuten maila zalantzan jartzen zen garai batean eta Lok horrek min handia ematen duela esaten du.

## 6. Surflaria eta emakumea izatea II

- **Erref**: ZAR-163/011
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:17:57. **Bukatu**: 00:21:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Eli urte osoan zehar sartzen da uretara, Lo jada ez. Hala ere, euren bizitza surfarekin lotuta dago. Emakumea eta surflaria izatea nolakoa den kontatzen dute. Batzuk emakumeak animatzen dituzten bitartean, besteak gutxietsi egiten dituzte.

## 7. Itsasoa sozializatzeko lekua

- **Erref**: ZAR-163/013
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:21:39. **Bukatu**: 00:24:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

**Laburpena**:
Ureta sartzean batzuk sozializatzeko gogoa izaten dute eta besteek ez. Elirentzat sozializatzeko modu bat da eta Lok hizketan hasten bada olatuak hartzea ahazten zaiola dio.

## 8. Zer da pikoa?

- **Erref**: ZAR-163/014
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:24:45. **Bukatu**: 00:26:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

**Laburpena**:
Pikoa zer den azaltzen dute. Pikoa olatua lehertzen hasten den lekua da, olatuaren zain egoteko tokia. Pikoa hondartza edo surfera sartzen zaren tokiaren araberakoa izaten da.

## 9. Arriskuak

- **Erref**: ZAR-163/016
- **Iraupena**: 0:04:58. **Hasi**: 00:26:48. **Bukatu**: 00:31:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

**Laburpena**:
Zarauzko hondartza udako masifikazioa medio arriskutsua bilakatzen da. Surf eskola asko daude udan zehar eta surfa egiteko tokiak mugatuak direnez arriskutsua bilakatzen da surf egitea. Arriskuak bestalde, olatuaren araberakoak dira. Olatu haunditan arriskuak handiagoak dira.

## 10. Surferako gidak eta teknikak

- **Erref**: ZAR-163/018
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:32:15. **Bukatu**: 00:35:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

**Laburpena**:
Zarautzen urte pare bat lehenago gertatutakoaz ari dira. Itsasoari errespetua zor zaio ez baita erraza itsasoa ezagutzea. Euskal kostaldea ezagutzeko gida oso gutxi daude.

## 11. Surferako gidak eta teknikak

- **Erref**: ZAR-163/020
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:35:16. **Bukatu**: 00:38:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

**Laburpena**:
Ur azpian geratzen zarenean zer egin behar den kontatzen dute. Olatu handietan ibiltzen direnek zein teknika erabiltzen dituzten ere kontatzen dute.

## 12. Surfisten hiztegia eta itsasoko hiztegia

- **Erref**: ZAR-163/021
- **Iraupena**: 0:04:35. **Hasi**: 00:38:17. **Bukatu**: 00:42:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

**Laburpena**:
Surflarien terminologia. Surfa egiteko lekuen izenak aldatu egin dira. Itsasoko hiztegiari dagokionez ezagutza gutxi dute Lo eta Elik.

## 13. Olatuak neurtzeko metodoa

- **Erref**: ZAR-163/023
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:42:55. **Bukatu**: 00:44:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

**Laburpena**:
Olatuak neurtzeko sistema metrikoan neurtu erabili ordez, beste bat erabiltzen da, internazionalagoa.

## 14. Surfeko terminologiaren jatorria

- **Erref**: ZAR-163/025
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:44:52. **Bukatu**: 00:46:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

**Laburpena**:
Surfean erabiltzen den hiztegia ingelesetik dator. Emakumeak surfalari proiektuan surfeko hiztegia euskaraz erabiltzeko ahalegina egiten dute.

## 15. Olatu ezagunak

- **Erref**: ZAR-163/027
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:46:54. **Bukatu**: 00:50:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

**Laburpena**:
Zarauzko olatuen inguruan dihardute. Olatu asko ospetsuak izan arren, ez dira edonorentzat. Surfa egiteko fisikoki oso forma onean egon behar da.

## 16. Uretatik kanpo surfa mintzagai

- **Erref**: ZAR-163/029
- **Iraupena**: 0:01:49. **Hasi**: 00:50:31. **Bukatu**: 00:52:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

**Laburpena**:
Uretatik kanpo itsasoa ez da ohikoena den mintzagaia.

## 17. Surflariekiko aurreiritziak

- **Erref**: ZAR-163/030
- **Iraupena**: 0:03:33. **Hasi**: 00:52:20. **Bukatu**: 00:55:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

**Laburpena**:
Aurreiritzi asko dago surfari dagokionez. Surflariak diren zarauztarrek pijo ospea dute. Lok bere ustez pijoa zer den azaltzen du.

## 18. Surflari ibilbidea

- **Erref**: ZAR-165/001
- **Iraupena**: 0:03:49. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

**Laburpena**:
Lo bere osabak eraman zuen surfera lehenengo aldiz. Hamaika urte zituen surfean hasi zenean. Txapelketa batean garaipena lortu onodren uda sasoiko denborapasa hura pixkanaka bere egunerokoan toki gehiago hartzen hasi zen. Urte luzez goi-mailako surflaria izan da Lo eta egun ere, surfari lotuta jarraitzen du bere bizitzak.

## 19. Garai berrietara egokituz

- **Erref**: ZAR-165/003
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:04:53. **Bukatu**: 00:08:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak

**Laburpena**:
Gaur egungo teknologia berriek surf-eskoletan izan duten eraginaz dihardu. Horrez gain, itsasoaren egoerei dagokionez ere, teknologia berriek asko lagundu dute itsasoaren egoeraren aurreikuspenei dagokionez.

## 20. "Goofy"-ak eta "regularrak"

- **Erref**: ZAR-165/005
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 00:08:12. **Bukatu**: 00:09:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

**Laburpena**:
Elisabet Thomasek aurreko elkarrizketan emandako azalpen baten harira Lok surfean norbait ezkerra ala eskuina den esateko "goofy" eta "regular" hitzak erabiltzen direla azaltzen du. Goofy hitza Mickey Mouse marrazki bizidunetako sagu ospetsuaren lagunarengatik hartutakoa omen da.

## 21. Emakumeak surflari

- **Erref**: ZAR-165/007
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:09:52. **Bukatu**: 00:12:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Lok surfari lotutako amets bat du. Amets hori "Emakumeak surflari" proiektutik emakume surflarien talde bat ateratzea da emakumeak elkarrekin uretara joan eta elkarrekin txapelketetan partehartzeko sare bat osatu dezaten.

## 22. Gomendioak hasiberrientzat

- **Erref**: ZAR-165/009
- **Iraupena**: 0:02:51. **Hasi**: 00:12:19. **Bukatu**: 00:15:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

**Laburpena**:
Lok hasiberriei emango lieken aholkua, gozamenarekin lotutakoa da. Hau da, surfean lehen aldiz egiten duenak duen zirrararekin lotutakoa. Zirrara edo sentipen horiek ikustea gustuko du Lok eta horregatik, oso gustuko du hastapeneko mailetako surf irakasle izatea.

## 23. Euska Herriko emakume surflari aitzindariak

- **Erref**: ZAR-165/010
- **Iraupena**: 0:02:21. **Hasi**: 00:15:10. **Bukatu**: 00:17:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

**Laburpena**:
Lok emakume euskaldun eta surflari aitzindariak aipatzen ditu. Izen asko ematen ditu. Horien artean Miriam Imaz bere herrikidea eta Vanessa Bustillo

aipatzen ditu. Hauek norgehiaketan partehartu izan duten emakumeak dira. Beste emakume batzuk ere aipatzen ditu txapelketetan partehartu ez arren, surfean aitzindariak izan direnak.

## 24. Iparralde-Hegoalde muga adierazgarri surfean ere

- **Erref**: ZAR-165/011
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:17:31. **Bukatu**: 00:19:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

**Laburpena**:
Euskal Herriko Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko muga aipatzen du surfari dagokionez. Gipuzkoako eta Bizkaiko kostaldearekin alderatuz gero Iparraldeko kostaldean surfa errotuagoa dagoela esaten du,. Harremanari dagokionez, txapelketak izan dira bi zonalde hauen harreman gune nagusiak.

## 25. Kantauri surf liga eta Iparralde-Hegoalde harremana

- **Erref**: ZAR-165/012
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:19:15. **Bukatu**: 00:20:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

**Laburpena**:
Kantauri surf ligaren inguruan dihardu. Euskal Herriko surf elkarteak elkar ezagutzeko ekimen bat da. Iparralde-Hegoalde loturak egon arren, federazio ezberdinak daude bi zonaldetan.

## 26. Uretan bizitakoak

- **Erref**: ZAR-165/014
- **Iraupena**: 0:04:07. **Hasi**: 00:20:27. **Bukatu**: 00:24:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

**Laburpena**:
Anektodak kontatzen ari da, Elirenak eta bereak.

## 27. Goi-mailako emakume surflarien egoerari kritika

- **Erref**: ZAR-165/016
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:24:53. **Bukatu**: 00:28:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Egungo surf-aldizkariek emakume surflariekiko erakusten duten ereduari kritika. Izan ere, aldizkarietan emakumeak modelo gisa hartzen ditutze aintzat, kirolari gisa aintzat hartu beharrean. Lo eredu horren aurka dago, kirol honetan egungo emakume surflariak gizonak bezain trebeak baitira.

## 28. Nor dira surflari eredugarriak?

- **Erref**: ZAR-165/018
- **Iraupena**: 0:04:26. **Hasi**: 00:28:17. **Bukatu**: 00:32:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

**Laburpena**:
Lok bere surflari ibilbidean izan dituen erreferenteen inguruan dihardu. Bere ereduak asko dira. Internazionalki dauden ereduen inguruan ere hitz egiten du.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-11-20*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com